

*Isabel Etxebarria*

URRUÑAKO HAUTETSI ABERTZALEA

## Gure aukera

**U**daberria lanpetua heldu zaigu. EH Bairen kanpaina abian dugu, ezkerreko alderdi politiko abertzaleak ados jarri baitira Akitaniako hauteskundeetan, hautetsirik lortzeko aukera baztertu badute ere. Zertarako aurkeztu, gisa guztiz hautetsirik ez bada lortzen? Horra betiko galdera. Funtzik gabekoa, argi baita Frantziako Gobernuak prestatu dituen Estatuko erreformetan ez diela herritarrei politikan eragiteko aukerarik eman nahi. Xede horretan, instituzioak herritarrengandik urruntzen ditu eta euskaldunon kasuan, instituzioetan itoak, ezabatuak izateko arrisku larrian gaude. Ondorioz, hitza emateko aukera guztiak hartu behar ditugu, gure burua erakutsi eta demokraziaren zapaltze urrats guztiak salatu.

Azken urteetako lanari Estatuak inongo begirunerik izan ez dionik, bi kontsulta antolatuko dira hauteskunde ofizialen ondoan. AHTri buruzkoa eta Batera plataformak euskal instituzioari buruzko iritzia- ren galdeketa. Horrek militanteen sekulako elkarlana eskatzen du, zainketa zorrotza beharko baita emaitzak serioak izan daitezen. Abertzale guztien elkarlana eta laguntza beharko dituzte bi kontsulta horiek. Erran nahi baita, AB, Batasuna, EA eta EAJko militanteak horretan ariko direla. Hau baikorra da, orain arte EAJ erraxago ikusi



GAIZKA IROZ

baitugu loturak egiten eskuineko frantses alderdiekin ezker abertzalearekin baino. Alderdietatik kanpo dauden abertzaleentzat ere berri ona da, askok elkarlan hori aldarrikatzen baitute.

Politika orainaren kudeaketa omen da. Segur da oraina okupatua dugula eta borondate guztien laguntza eskatzen duela une honek. Horrek balio du erakusteko proposamenak egiten dituztenak abertzaleak direla eta gure proiektuak aitzina eramateko elkartu behar dugula. Ballardur-en erreformak mapatik ezabatu nahi gaitu, Frantziako Estatuaren proiektuetan tokirik ez baita euskaldunentzat. Adibidez, departamenduan aurkeztzen den Alain Lamassoure Sohütako ikastolara joan da harro-harro prentsarekin, euskararekiko duen interesa erakusteko. UMPekin aurkeztzen da Lamassoure Euskal Herrian. Frantsesa Estatuko hizkuntza bakar bezala bozkarazi zuena Toubon legearen bitartez. European euskal gatazkaren bukaerako mozioaren aurka ere bozkatu zuena! Desagertzea, Frantziako Estatuak ez digu beste gero-rik proposatzen. Berdin zaio Lamassoureri. Jendeak ahanzten baitu eta politikari mota horrek ez du lotsarik.

Euskaldunen artean, Euskal Herriaz pentsatzen hasi behar dugu politikan. Independentziarako bidea da gure aukera. ■

«  
Politika orainaren kudeaketa  
omen da. Oraina okupatua dugu  
eta borondate guztien laguntza  
eskatzen du une honek  
»

## HIRUKO TXIKIAN

*Joxemari Ostolaza*



Ez da berria. Gazte-  
tan Torneo Don  
Bosco, San Ignacio,

Victor Pradera jokatzeko genituen. Espainia-  
ko Futbol Federazioak jokalaria onentzat  
Pichichi eta Zamora ditu. Garai batean Copa del Gene-  
ralisimo zuen. Orain Copa del Rey. Jokalari-entzat ofi-  
zioaren parte da, Copa de Champagne jarriko balute  
bezala. Baina zaleek, ordaintzaile jatorrek lehiaketa ez  
dute ofizio. Eta futboleko bezala saskibaloian ere erre-  
gearen presentzia ereserki eta guzti desgustukoa due-  
nez, txistuz adierazten du. Nola bestela? Eta orain ere  
kasualitatez, katalanak eta euskaldunak izan dira erre-

## Urrunetik dator

asmoa, behin baino gehiagotan haizatu duena. Eta bere  
horretan jarraitzeko intentzioa adierazi du, hau denbo-  
rale bateko fenomeno baidiriz. Eta hau gaitzeta ez  
da zaila, hain beharrezkoak omen dituzten ikurrak era-  
kustea ekiditea besterik ez dute. Aski lukete erregerik  
eta ereserkerik gabeko Copa del Rey jokatzeko, negozio  
horiek ez lukete espektakulua galduko eta normaltasu-  
nez igaroko lirake. Baina kolonizatzaileak oroz gain  
kolonizatua bere presentziaz gaitzatu behar du. Ongi  
hartua ez dela izango jakitun. ■